


X FERIA DEL LIBRO DE PAMPLONA

JON ARRETXE
IDAZLEA.

“Europako ametsa betetzera abiatzen diren askorentzat kartzela da Tanger”

Irufeko Liburu Azokaren X. edizioaren eskutik, Jon Arretxe idazle basauritarrak bere azken lana aurkeztu zuen atzo Gazteluko plazaan. 'Tangerreko ametsak' eleberria euskaraz nahiz gaztelaniaz argitaratu izan nahi dute Erein argitaletxeok



Jon Arretxe idazle basauritarra. ARGAZKIA: JAVIER BERGASA

MIREN MINDEGIA
IRUÑEA. *Tangerko ametsak* da Jon Arretzek (Basauri, 1963) argitaratutako azken lana. Ametsak bete ezinik, noraezean dabilzan pertsonaien bizitzak eta ustekabeko misterioak eskutik doaz, bidai literatura eta nobela beltza nahasten diren eleberrri honetan.

Tangerko ametsak. Nondik dator izenburua?

Alde batetik Tangerren kokatzen da istorioaren ari nagusia. Bi ari daude: lehenengoa Afrika beltzean, Bamakon, kokatzen da; eta bigarren planoan, nagusia, Tangerren kokatuta dago, Marokoko iparraldearen muturrean. Tanger, Europarantz edo Espainia hegoaldera pateretan doazentzat abiapuntu nagusia da: ametsena hortik dator pixka bat. Jende askorentzat Europa pasatzea da ametsa, lehenengo mundura pasatzea: amets horiek batzuetan errealitate bihurtzen dira eta gehienetan ez. Tanger bera kartzelan bihurtzen da askotan, izan ere, Afrika beltzetik irten, basamortua pasatu eta gero engainatu egiten dituzte askotan, edo asuntxo gaizki ateratzen zaie eta atzera ez aurrera geratzen dira, arlote edo prostituta bizimodua egiten, bakoitzak ahal duen moduan bizirautean.

Denboraldi bat Tangerren ibili izan zara, eleberria idazten. Bidaietan oinarritu ohi zara istorioak sortzeko?

Bai. Aspaldi honetan formatu batekin nabil, nobela beltza bidai literatura kutsu handiarekin nahasten duena. Markoa, istorioan, ez da kasuaila. Lekuak garrantzi oso handia dauka. Nire lehen liburuk bidai literaturakoak izan ziren, batzuk kronika, besteak fikzioa... Orain hau fikzioa da, baina hala eta guztiz ezagutu dudan errealitate hori erakusten salatu naiz.

Beharrezkoa suertatzen zaizu lurraldea ezagutzeko istorioa idazterako orduan?

Bai. Nire ustez istorio bat leku batean kokatzen duzunean oso garrantzitsua da ongi ezagutzeko. Hor ibili daiteken pertsonaia mota, giroa, dena.

Pertsonaiek eraikitzerako orduan eragina dauka horrek?

Bai. Nik hiru egonaldi egin ditut Tangerren azken urte honetan, nobela idazteko atzakiarekin. Orde-nagailuarekin joan naiz, ostatua hartu eta hiriarri utzi dio inspirazioa eta pertsonaiek ekartzen, egoerak berez sortzen... Askoz errazagoa da hemendik imajinatuta baino ezta? Hoteleko leiho batetik Tangerko

portu erraldoia, Gibraltarreko estugunea eta Espainia, hantxe aurrean, ikusten nituen. Beste leiho batetik izkinatxo bat ikusten nuen non bi prostituta egoten ziren. Mesquita nagusia ere hurbil nuen: eguneroko errezo eta otoiizaldiak, hileta desfileak eta pertsonaiak, arloteak, zoroak... Gerora pertsonaia bilakatuko diren pertsonak. Mila te eta mila kafe hartu ditut hango terrazetan, Zoko Txikia deitzen zaien toki batean, Medina Zaharrean. Zure begien aurrean ikusten dituzu jendearen portaera eta itxurak, pertsona xelebreak...

Zer nolako pertsonaia aurkituko ditu irakurleak zure eleberraren orrialdeetan?

Pertsonaia nagusiak kapituluak azaltzen hasten dira. Lehenengoa da neska zuri bat da, Bamakon, Afrika beltzean, kanpoaldeko auzo batean agertzen dena, argazki bat eskuan duela norbaitez galdezka. Hori da abiapuntua. Gero Tangerrera goaz, eta gaueko azken ferrian iristen den gizon misterioz bat agertuko zaigu: badaki nora doan eta zertara, helburu jakin batekin iristen da. Hurrengo kapituluak kaleko bi emakume agertzen dira, horietariko bat da Fatima gaztea. Bere herrian haurdun geratzeagatik arbuaiatu egin zuten eta, ume txikia bizkarrean, Tangerrera alde egin behar izan du, bizirautea. Azken pertsonaia nagusia Moussa izeneko beltz bat da, Europara pasatzeko ametsarekin Tangerrera heldu dena. Engainatu egin dute eta hor geratu da. Egoera horretan dauden milaka eta milaka pertsona dago Tangerren, euren ametsak harriaren kontra tupust egin dutenak, eta bera horietako bat da: arlote bizimodua egiten du ahal den moduan bizirik irauteko, ez baitio amets horri uko egin. Gero beste pertsonaia asko agertuko dira. Hango pertsonak direnak pertsonaia bihurtu ditut libururako.

Misterioak ere bere lekua badauka ezta?

Nobela beltzetan beti sortu behar duzu misterioa. Hilketak, maitasunezko istorioa, miseria, biziraupenaren aldeko borroka, magia beltza eta magia zuria... Guzti hori dago. Magiaz ari naizenean benetako magiaz ari naiz, han egunerokoan dagoen zerbaite baita.

Azken aldian nobela beltza landu izan duzu gehienbat. Erosten sentitzen zaren generoa dela erran daiteke?

Azken aldian bai. Nik bidai literatura zen gehienbat lantzen zuena, baina nobela beltzarekin bat egite-rakoan, bi bideak jarraitzen dituen genero bat topatu dut. Biak bateratzen dira: trama indartsu bat, lehen aipatutako osagai guztiekin; eta leku eta pertsonaien garrantzia batzen dituen.

Genero berri batzen aurrean gaude-la erran daiteke?

Bai, ia ia. Nik ez dut ezagutzen horrelako beste lanik. Leku garrantzia daukatena bai badaude, baina honako hau biak batzen dituen genero bat da.

El investigador Iñaki Sagredo presenta hoy su nuevo trabajo

Ha publicado con Pamiela 'Vascones. Poblamiento defensivo en el Pirineo'

PAMPLONA. El investigador histórico Iñaki Sagredo presentará hoy su nuevo trabajo, *Vascones. Poblamiento defensivo en el Pirineo*, editado por Pamiela.

El autor, responsable de una interesante saga sobre castillos relacionados con el Reino de Navarra, dará a conocer su nuevo libro en dos citas que se celebrarán en el marco de la Feria de Pamplona. La primera será a las 12.30 horas y la segunda, que incluirá una firma de libros, será las 19.00 horas en el mismo espacio.

La plaza del Castillo acogerá, asimismo, el espacio para la lectura de todos los días, protagonizado hoy por alumnos de primer ciclo del Colegio San Francisco. >D.N.



Ana Arizcuren. FOTO: J. DIGES

Ana Arizcuren debuta con el relato infantil 'Noches de sapos'

La escritora mantuvo un encuentro con 50 niños del Colegio Santo Tomás

PAMPLONA. Ana Arizcuren protagonizó ayer, en el marco de la Feria del Libro, un encuentro con 50 alumnos del Colegio Santo Tomás, que le preguntaron las más variopintas cuestiones sobre su libro *Noches de sapos*, en el que cuenta experiencias reales que vivió con su hijo Jon.

Arizcuren (Pamplona, 1953) se marchó de Navarra con 17 años y después de vivir en varios países regresó a su tierra natal, donde desde hace nueve años compagina la escritura con las clases de inglés. En *Noches de sapos*, su primer libro, recoge las aventuras relacionadas con los múltiples animales que le interesaban a su hijo desde aquella noche tormentosa en la que salieron, pretrechados con un cazamariposas, a capturar sapos en una estrecha carretera de Ituren y se les estropeó la linterna. >D.N.

Una novela de sueños incumplidos

Sueños de Tanger es el título de la última novela del escritor basauritarra Jon Arretxe. Publicado tanto en euskara como en castellano, Arretxe relata una historia que mezcla misterio, amor y la continua lucha por la supervivencia, en una novela negra con fuertes tintes de literatura de viajes: El escritor, que presentó ayer su libro en la X Feria del Libro de Pamplona, pasó una temporada en los dos lugares principales donde se desarrolla el argumento de la novela, Bamako (capital de Mali) y Tánger (al norte de Marruecos). "Tánger no es solo el escenario de fondo", explica el autor, "es la tierra donde muchos de los que intentan cumplir su sueño de llegar a Europa se encuentran con que ya no puede avanzar más, y no tienen otra que dedicarse a sobrevivir como puedan. A veces los sueños se cumplen, pero muchas otras veces no". Este es el punto en el que se entrecruzarán las vidas de los personajes principales de la novela: un hombre que llega en el último ferry del día con un fin claro; Moussa, un joven de Mali que quiere llegar a Europa; y Fátima, una joven de Rif repudiada por su familia que sobrevive como puede por las calles de la ciudad. >M.M.P.